

BAKE KONFERENTZIA
Berdintasun printzipioa partekatzeko prozesua

Gaur egungo blokeo egoera gainditzeko alternatibak eta aukerak eskainiko dituen Bake Konferentzia bat antolatzea erabaki zuen **elkarrik**, elkarrizketa eta akordiaren aldeko gizarte mugimenduak.

Bake Konferentziaren honen bultzagile edota arrazoi nagusia elkartasuna da, hau da, sufritzen ari diren eta sufritu behar ez luketenekiko elkartasuna, zein sufrimendu-egoerak saihestu, leundu eta gainditzeko lagungarri izan daitekeelako. Bakearen eta normalizazioaren etengabeko bilaketa da bigarren eragile nagusia.

Bi fasetan garatuko da Bake Konferentziaren proiektua: 2001eko lehen sehilekoan Prestakuntza Fasea eta, urriaren hasieratik 2002ko martxoa artean, Garapen Fasea.

Prestakuntza Fasea

Aurtengo lehen sehilekoan gauzatu da. Gizartearen babes zabala bilatu, alderdi politikoek onartuko luketen elkarrizketa metodologia finkatu eta jende ezagunak, zein erakundeek, proiektuaren aldeko laguntza finkatzea zuen helburu.

Gizarteari dagokionez itxaropenik baikorrenak gainditu dira non 4.400 laguntzaileek 50.000tik gorako sinadura - mila pezeta

emanda- bildu dituzten. Gizartearen laguntza zabal honek bi gauza adierazten ditu: batetik, gauzak aldatuko direnaren konfiantzarik baduela gizarteak. Konponbiderik badagoela uste du; ez dago etsita, ez du amore eman, ez du itxaropena galdu. Bestetik, gizarte honek baduela kemenik, indarrik, gaitasunik eta borondaterik eta erantzunkizunik. Labur esanda: itxaropenaz gain badu euskal Herriak lanean hasteko, borrokatzeko, laguntzeko eta bakearen aldeko auzolanari ekiteko gogo bizirik

Euskal Herritik kanpo ere babes garrantzitsuak - eta izen handikoak- lortu ditu proiektu honek. Hiru laguntza Batzorde eratu dira dagoeneko: Bruselan, Katalunian eta zazpi Nobel saridunek eta izen handiko nazioarteko hiru pertsonalitatek osatu dutena. Laster aurkeztuko da Madrilen osatzen ari dena eta baliteke besteen bat ereosatzea.

Garapen Fasea

Bake Konferentzia ez da egun edo aste bateko gertakari husta, sei hilabete iraungo ditu, prozesu bat da eta, prozesua denez, helburu garbia du, abiapuntu jakina eta lau lan-egitasmo edo proiektu.

Akordioen bat lortzea du helburu. Ez nolana hiko akordioa. Ez du balio ezer adierazten ez duen itxurazko akordioak; nolabaiteko ekarpenik egiten duen akordioa behar da, zerbait berria, egoera aldatzeko bidea ematen duen zerbait berria. Gure gizarteko esparru eta ikuspegi politiko guztien babesa izango duen akordioa

Eta helburua lortzeko abiapuntu bat behar da eta proiektu honen abiapuntua berdintasun-printzipioa da. Elkarrik ez dio inori esaten zein duen abiapuntua baina berak, gizarte mugimendu gisara, badu eta garbi azaltzen du: **berdintasun-printzipioa da abiapuntua**. Gizaki guztien giza eskubideak babesteko bizitza-egoeren berdintasuna, ideia edo nortasun politiko guztiak, askatasun osoz, ordezkatzeko baldintza politikoen berdintasuna, eta proiektu politiko guztiak gauzatu

ahal izateko baldintza demokratikoen berdintasuna, joko-arau berberak dituztela eta joko-arau berberen arabera.

Horrezaz guztiaz gain lau egitasmok osatzen dute Bake Konferentzia. Lau izenak erraz gogoratzeko, komunikazioaren inguruko deitura-joko batean biltzen dira: hitz bat; folio bat, liburu bat eta dossier bat.

Hitz bat. Hau da lehendabiziko proiektua eta hauxe du eginkizuna: berdintasun-printzipioa zabaltzea gizartean, liburuxka baten bitartez, eztabaidarako hastapen edota lehenbiziko osagai gisara.

Folio bat. Moderatzaile-talde baten eta indar politikoen artean komunikazioa zirkuitua martxan jartzea du helburu. Indar politiko guztiek babestuko luketen elkarrizketarako akordiorik (oinarri-oinarrizko printzipioen inguruko akordiorik) lortzerik ba ote dagokeen aztertzea. Diskrezio mailan arituko den komunikazioa zirkuitua, zalaparta mediatiko eta publizitariorik egingo ez duena.

Liburu bat. Hausnarketa eta eztabaidarako errespetuzko giroa sortzea sei hilabeteotan: Mahainguru, hitzaldi eta txosten aurkezpen zikloa eginez herritarren patehartze bizia lortzea du helburu. Jasotzen diren ekarpenak liburu batean bildu eta argitaratu egingo dira.

Eta azkenik, **dossier bat.** Bake Konferentzia prozesu honetan gizartearen partehartzea egituratuko duen txostena. Jasotzen diren ekarpen guztiak dossier batean bildu eta argitaratu egingo da, alderdi politikoei banatzeko.

Aipatu egitasmok hauek azaltzen duten legez Bake Konferentzia burutzeko behar-beharrezkoa da gizartearen parte hartzea eta

Nola parte hartu?

Oso zabala da Bake Konferentzian parte hartzeko eskaintza: Postaz, faxez edota posta elektronikoz bidal daitezke iri-

tzi, proposamen eta ekarpenak. Baita hitzaldi, mahainguru eta bestelako ekitaldietan banatuko diren koadernoen bidez, non hausnarketa egitera gonbidatzen duten eta, aldi berean, gatazkaren konponbidearen aukerak sumatzera. Eta eskura egongo dira beti, ekimen honi buruzko informazio zabalagoak, **elkarriren** edozein bulegotan.

Maixux Rekalde

Elkarriko kidea